

-2004-

## 2004ko urtarrilak 2

Egunen batean zerbait esango dut.

## 2004ko urtarrilak 10

Munduaren ondoan bizi naiz.

## 2004ko urtarrilak 12

Lizardiren *Mendi-gaiña* poemaren hasiera, hegaztiaren begian: “Maite ditut gaillurrak / argiak ez beste... / Ai, pertsona banintz / pausoz pauso nenbilke!”

## 2004ko urtarrilak 30

Bete-bete huts egin.

## 2004ko otsailak 3

### Gorririk eta Ortisier

Ezer jantzi gabe irten ziren, aspaldi, nor bere etxetik, Gorririk eta Ortisier. Ez dira harrezkero jantzi eta ez dira harrezkero nor bere etxera itzuli. Elkarrekin dabilta, biluzik beti, hortik zehar.

## 2004ko otsailak 6

Esateko eta Modua elkartzen direnean, beti gertatzen da zerbait.

## 2004ko otsailak 7

Ez dakit guztiz egia den, baina kontsolagarria zait beste modu batean jokatuta ere –denbora gehiago eskaini, lan gehiago egin, gogorrago saiatu...– idazten dudana baino ezin izango nukeela idatzi pentsatzea.

## 2004ko otsailak 9

Krisian adiskide asko, krisian batzuk eta besteak. Gaztetxoak zaren artean, ez dago arazorik, baina behin adin batetik aurrera –30 urte, 35, 40...?– ez duzu batere itxura onik ematen argazkian mugituta ateratzen bazara.

## 2004ko otsailak 12

Bi hitz eta irri bat. Hori behintzat nahi duzun orotan izango dut zuretzat.

## 2004ko otsailak 14

Orain ezetz uste arren, ahaztu egingo duzu inoiz lerro hauek irakurri dituzula. Liburu osoa ahaztuko duzu. Ahaztu idazlea ere. Baina idatzi egin behar nuen. Eta irakurri egin behar zenuen.

## **2004ko otsailak 16**

Bizitza baldin bada ondasunik handiena, bizitza osoki hurkoaren aldeko ongintzari eskaini nahi dionak pentsa dezake, bizitzaren aldeko jarrera muturreraino eramanez, mundura ahalik eta pertsona gehien ekartzea lehenetsi behar duela, aurretik etorriak garenon onurari, plazerari eta zorionari eskainitako lanak eta nekeak baztertuta horretarako; bere onurari, plazerari eta zorionari eskainitakoak barne, jakina.

Munduan izan diren iraultzaile eta misiolari handi eta sakrifikatuenen gainetik kokatuko litzateke, ikuspuntu horretatik begiratuta, jokabide horri zintzotasunez eta bere gorputzaren azken aukeretarainoko ahaleginez lotutakoa. Ez litzateke funts logikorik gabea sinestunak xede horretara mugarik gabeko suhartasunez bultzatuko litzuzkeen erlijioa; ondoriozko ezintasun eta oinaze guztiak egonarriz, etsipenez eta irmotasun estoikoz eramaten lagunduko lukeen fedea.

Ez dut, hala ere, sekula horrelako konturik entzun edo irakurri, ezta film edo nobela bateko planteamendu gisa ere. Harrigarria da.

Jose Saramagok, esaterako, nobela ederra idatziko zukeen, berari bururatu balitzaio.

\* \* \*

## Tele-zaborra askatasuna da

Azken hilabeteetan utzi egin diot ezkertiar eta progre izateari. Orain ez naiz koherentea, ez dut koherente izan beharrik sentitzen. A zer arindua!

Lana egiten dut, diruagatik, ez naizelako aberatsa eta beste erremediorik ez dudalako. Baina orain lanetik kanpoko orduak moralik eta betebeharririk gabekoak ditut guztiz. Libreak!

Horregatik orain, duela bospasei hilabete ez bezala, telebista daukat etxean, eta kezkarik, beldurrik eta erruduntasun sentimendurik txikiena ere gabe ematen ditut orduak haren aurrean, zoriontsu. Gaueko ordu txikietan batez ere, lerdokeriaren neurriak gora egiten duenean. Orgasmoetan bezala izaten da: uneak harrapatzen zaituenean, inoizko gorenera iritsi zarelako irudipena duzu, laino guztien gainetik, muga guztietatik haratago, gaindiezinezko puntu ezin goitarragoraino.

Nahi dutena esango dute, baina tele-zaborra deitzen duten hori oso eskergarria da, oso aberasgarria, eta batez ere laguntza handia ikuslearen barne-oreka psikologikorako. Ni behintzat asko lasaitzen nau mundu honi –hain injustua, hain desorekatua, hain gordina, hain ankerra, nahi duzuen guztia... – telebistaren leihotik begiratzeak.

Ez baitago tele-zaborra deitzen duten horretan agertzen diren lerdo horiek guztiak batera beren miseriarik lohienak haizatzen ikustea bezalakorik norberaren burua betebeharraren moralaren alferrikako zama astun eta absurdutik askatzeko. Horienak ikusi ondoren, zer dira ba norberaren miseria guztiz xume, arrunt, inozoak? Txikikeriak, umekeriak, deus ez. Eta areago: lerdoago izateko gogoa pizten zaizu. Ez da erraza, baina horiek guztiak bezain lerdoa eta higuingarria banintz, zer? Hobe! Baliatu! Atera zukua eta segi aurrera! Zergatik ez ba? Nor demontrek eta zer arraioren izenean jarri behar dizkit ba mugak?

Gustura oheratu ohi naiz, lasai, irri zabalez. Lehen, ezkertiarra eta progrea nintzenean, ia-ia intelektuala, *Krimena eta zigorra* eta horrelakoak irakurtzen nituen. Orain tele-zaborra ikusten dut. Ez dago kolorerik! Tele-zaborra Dostoievski baino askoz ere eraginkorragoa da. Tele-zaborrak askoz libreago egiten nau. Tele-zaborra askatasuna da.

(Ikus 2003-X-11.)

\* \* \*

Kirolariaren benetako poza irabaztea da, ez behiala irabazi izana, hain gutxi garaikurra. Gisa berean, idazlearen benetako poza idaztea da, ez behiala idatzi izana, hain gutxi testua. Funtsean, idatzitakoak ez baitu ezertarako balio, garaikurrak ere ezertarako balio ez duen bezala. Orobat, ezertarako balio gabeak dira behiala idatzi edo irabazi izana ere. Behiala maite izana edo maitatua izana bezalaxe. (Ikus 2003-VIII-30-b.)

### **2004ko otsailak 18**

Hunkitu egiten naute prentsaurrekoek. Kulturaren arlokoek behintzat. Hor du aurrean kazetariak sortzailea, behiala barruan indar menderaezinez erne zitzaion aspaldiko ilusio oro-irensle hura lanaren bide malkartsuetan taxutu ondoren, obra plazan erakustera irtena, maiteen duena pozik eta eskuzabal eskaintzen.

Baina kazetariarentzat bat gehiago da artista, medikuarentzat eria izan ohi den bezala, adibidez.

Eta are hunkigarriagoa bihurtzen du prentsaurrekoa kazetarion hoztasun baldar disimulatuak.

### **2004ko otsailak 20**

Jardina eduki, mendia galdu. (Ikus 2003-V-17-b.)

\* \* \*

Urtebete da lantokia itxi zigutenetik, eta gaur jakin dugu Del Olmo epaileak beste hiru lagun inputatu dituela *Egunkaria* kasuan. Kafkak euskaraz idatzi behar zukeen.

### **2004ko otsailak 21**

Haserre dut adiskide bat. Ez omen diot berak espero zuen eta nahiko lukeen bezala erantzun. Neurea da errua, kaltegarria dela jakin arren, ohartu gabe, nahi gabe, borondaterik onenarekin, esperantza faltsuak sortzen ditudalako. Nekagarriegia da kontu hau. Nork agintzen dio inori niregandik ezer itxarotea? Egin al diot inoiz inori promesarik?

Adiskidetasuna gauza handia eta ederra dela esaten dute. Sentitzen dut. Ez dut inoiz adiskidetasuna ulertuko. Ez dut inoiz adiskide izaten jakingo. Izatekotan, hortik abiatuta izango naiz inoiz inoren adiskide ez bada antzeko zer edo zer.

(Ikus 1990-II-8.)

### **2004ko otsailak 27**

Adiskide min bati eman diot ohar-koaderno honen kopia inprimatua. Kolpetik, bat-batean, bai nire buruaren atal batean behintzat, liburu ikaragarria izateari utzi dio, eta tarteka puntutxo bitxi eta interesgarri bat edo beste izan dezakeen obratxo arrunta bihurtu da. Ez da larria. Uste dut hau idazle onenei ere gertatzen zaiela, zaigula; baita liburu onenekin ere, liburu onenekin.

(Ikus 2000-X-28 eta gainerakoak.)

## 2004ko otsailak 29

Elkarrekin lotuta, errepide guztiak errepidea dira. Antzeko gisan, errepidea bezala, une batzuetan guztiz irekia sentitzen naiz, aukera eta maitasun guztietara zabalik. Ona sentitzen naiz, edonoren lagunik adiskideena, barrukoena, mamiena, minena, muinekoena. Poesia sentitzen naiz, bizitza egoerarik garbienean, xehetasun prosaiko trabagarri orenen gaintik. Beste hitz batzuekin esateko, modu autoironikoagoan: James Deanen begirada galduaren jabe. Guapoa eta guzti sentitzen naiz, barruko indarraren poderioz. Gezurrezko egoera izanik ere, ilusio hutsala, zirrara hori aberastasun handizat daukat. Zer nintzateke, izan ere, hori gabe, horrekin ere ezer gutxi naizen hau?

\* \* \*

## Ideologiaz

Anarkismoa? Komunismoa? Sozialismoa? Antidesarrollismoa? Antiglobalizazioa? Alterglobalizazioa? Humanismoan oinarrituko ideologia txalogarriak dira horiek, horrela ikusten ditut nik behintzat, eta funtsaren funtsean, muinaren muinean, ezer izatekotan, anarkista antidesarrollista izango naiz, seguru asko, ni.

Baina bada inongo ideologiak erantzuten ez didan galderarik, konpontzen ez didan arazo ideologikorik. Berez positiboa dirudien errealitate batean dago ezinaren oinarria: gizakiaren indarrean. Indar handia du gizakiak, bai gizakiarengan eta bai haren inguruan eragiteko; hala borondate onez nola suntsipenerako asmoz edo grinaz; mesede nahiz kalte eginez.

Horren ondorioz, agintearen ahalmen suntsitzailea ikaragarria da, eta hazi baino ez da egin azken urteotan, XX. mende osoan eta XXI.aren hasieran, aurretik pentsaezinak ziren neurrietara iristeraino. Eta baita ahalmen limurtzailea ere, gero eta maizago suntsipenerako bide gisa arrakasta beldurgarriz erabilia.

Iraultzaile humanistak ezin du bere esku indar, aginte, botere handiegirik izatea onartu, ez suntsitzailerik, ez limurtzailerik, ez bestelakorik. Botere hori gabe, ezin die inola ere benetan aurre egin botere ezarriaren injustiziei; botere hori bereganatu eta onartzen badu, berriz, botere horren beraren defentsara bideratu beharko ditu, injustiziaritarte berriak zabalduz ezinbestean, lehen borondate oneko humanismoak seinalatutako ekimenetara bideratzen zituen ahaleginak eta nekeak.

Ni baino xake jokalaria hobeak beharko dira xake estu horri egoki erantzuteko.

\* \* \*

Justizia, onenean ere, bi injustizia edo gehiagoren arteko hautua izaten da.

## 2004ko martxoak 2

Hilotzez betetako zoriona.

## 2004ko martxoak 17

### Hilotzez betetako zoriona

Ez dakit zer burutaziok eraman ninduen martxoaren 2an nire koadernoan ohar hori idaztera: “Hilotzez betetako zoriona”. Uste dut Morauren *Txukalda* disko berriko *Gure zorientasuna* kantuko hitzen ondorio izan zela, neu konturatu gabe, ohartxo hura. Aho bizarrak gabeko hitzak Moraurenak!

Egun batzuk geroago, martxoaren 6an, Euskal Herriko hainbat arazo politikoren inguruan hizketan, esaldi biribila bota zidan adiskide batek: “Estatua duk biolentzia egoera puru-puruan.” Nork uka dezake hori?

Martxoaren 11n, berriz, ondo gogoan izango duzuen moduan, hilotzez bete zen telebista.

Ez dut martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuen inguruan zentzuzko hitz askorik entzun harrezkero. Arnaldo Otegiaren erreakzioa goraiatu dute askok, zorionak eman dizkiote; baina Otegi ere ez dio erantzunik eman egin behar litzaiokeen –eta inork egin ote dion ez dakidan– galderari: non dago muga? Zilegi bekit demagogia pixka bat (han eta hemen ikasia), galdera hau egiteko: pepita-saltzaile bat bere denda koxkorreko mostradore atzean tiroz josita zerraldo uztea, adibidez, asko jota, konpondu beharreko gatazka baten testuinguruan kokatu beharreko gertaera deitoragarria al da, pepita-saltzailea PPko zinegotzia baldin bada Zumarragan?

Batzuen ikuspegitik begiratuta –eta ez guztiz logikarik gabe–, ez al da gutariko edozein –dela El Pozo del Tio Raimundokoa, dela Txakurzulokoa– ETakide batentzat PPko zinegotzia izan daitekeena bezain *garbigarria*, mundu mailako esklabotasun globalizatuak aberastutako Mendebaldeko gizarte zapaltzaileko kide garenez, gizarte hori gure lanaren eta kontsumoaren bidez indartzen dugunez?

Non dago muga? Zoritxarrez, Estatua da benetan mugak jartzeko ahalmena duen bakarra, ez alferrik baita “biolentzia egoera puru-puruan”. Gertuko adibide bat jartzearren: nola egongo ote da Julen Atxurra artikulua honek argia ikusten duenean?

Nik ere pena eta amorrua sentitu dut telebistako irudiei begira. Eta, aitor dezadan, beldurra ere bai: 2001eko irailaren 12an, leihotik aeroplano txiki bat ikusi eta etxearen kontra jotzera etorriko zela pentsatu ez nuen ba, piloto suizida batek gidatuta!

Baina gure zoriona lehenagotik zegoen hilotzez kartoletaraino beteta.

## 2004ko martxoak 21

Batzuetan ez, batzuetan ez naiz James Deanen begiradaren jabe sentitzen. (Ikus 2004-II-29.)

## 2004ko martxoak 30

Atzo pattal samar egon nintzen egun guztia, buruko minez eta ondoezik. Gaur hobeto esnatu naiz, osasuntsu, indarrez. Horrelakoetan ohi dudanez, 40 izan ordez benetan 30 urte baino ez ditudala pentsatzearekin batera, David Beckham baino guapoago sentitu naiz ispilu aurrean muturra garbitzean, eta nire ezkerreko zangoa

Javier de Pedorena inoiz izan dena baino trebeagoa delako irudipen indartsua izan dut, duda izpirik gabekoa, etxetik irten eta espaloi gainean ibiltari hasi orduko.

Nahiz eta ez naizen inoiz futboleant bereziki trebea izan, gaztetxo nintzela plazer handia zen niretzat futboleant aritzeant neskak begira izatea. Horretarako inolako oinarri edo berme errealik izan gabe –ez joko onik, ez golik, ez mugimenduen dotorezia apartekorik, ez aurpegi edo gorputz edertasun berezirik–, liluragarria sentitzen nintzen, neska guztiak txoratzen izan behar nituela iruditzen zitzaidan.

Nahiz eta futboleant oso gutxitan jokatzent dudant –eta jokatzent dudant apurretant emakumerik begira izan ez–, ez dut galdu gaztetxo garaiko indar berezi hori, eta batzuetant, Javier de Pedro eta David Beckhamez haratago, are James Deanen gainetik ere sentitzen naiz (ikus 2004-II-29-a).

Gaur kezkarako bidea zabaldu dit, ordea, horretaz pentsatzeak. Azalduko dut zergatik. Argi dago, sentitzen dudant sentitzen dudala, ez dudala James Deanen antz handirik, Beckhamen aldeant itsusia naizela eta nire ezkerreko zangoa guztiz trauskila dela De Pedorenarekin konparatuz gero. Hori ez zait axola, hori beti jakin izan dut. Baina horren aspalditik dakardant idazle onena naizelako kontu hori guztia ere (ikus 2004-II-27 eta gainerakoak; oso ugariak dira horren inguruko sarrerak ohar-koaderno honetan, eta oso aspaldikoa duzu lehena: 1988-III-16-a!) nire sentimendu hutsa ote da, neure irudipen pertsonal inolako oinarri edo berme errealik gabekoa? Neskak erakartzent edo futboleant jokatzent bezain erdipurdikoa ote naiz bada literatura idaztent? Arraioa! A zer nahigabea hori pentsatzea!

## **2004ko apirilak 10**

Ez daukat arazorik musika entzunez idazteko, baina ezin dut musika entzunez irakurri. Erraza zait idazteko behar dudant buru-indarra batzea. Irakurtzeak, aldiz, askoz ahalegin handiagoa eskatzent dit alde horretatik.

Idazteko dudant erraztasun horrek bi motibo nagusi ditu, aski argiak nire ustez: batetik, idaztent hasi aurretik nahiko mamitua izatent dudala, beti, idatzi beharrekoa; bestetik, idaztea oso ariketa gustukoa dudala, berezkoa eta egunerokoa.

Irakurtzeko dudant zailtasunaren motiboak ez dira hain argiak. Baina egia da gutxitan sentitzen dudala –kasu bakanetan baino ez– irakurtzent dudant idaztent dudant bezain gertu, bezain neure.

Gutxien-gutxienez, zer une literariotant nagoen erakutsiko du horrek, ezta? Areago, akaso: nolako idazlea naizen. Edo... ez naizela benetako idazlea.

## **2004ko apirilak 11**

Ikaragarriko beldurra sentiarazi zidant orain hurrengoant amildegiant baten ertzera hurreratzeak. Izutu egitent ninduent ustegabeko edozein mugimendu xumek izan zitzakeent ondorio lazgarrietant pentsatzeak. Baina lasaitasun osoz hartzent ditut, batere ikararik gabe, askoz ere arrisku handiagoak noiznahi; autobideant orduko ehundik gora kilometroko abiadant kamioiak aurreratzeant, esate baterako. Askoz ere probableagoa baita kasu horietant ezusteko mugimendu xume hilgarria: neurea ez bada, beste txofer batena, edo autoarena nahiz kamioiarena bestela.

Kultura kontua izango dela uste dut. Askoz ohituagoak gaude autobide azkarretara amildegiant ertzetara baino.

Baina litekeena da dutent indar metaforiko ukaezinak ere eraginik izatea amildegiant ertzek sentiaraztent didatent izu neurritz gaineko horretant.

## **2004ko apirilak 24**

Nahiko gustura ari naiz lanean, ondo moldatzen naiz lankideekin. Baina batzuetan inbidia diet futbol jokalariei, ez diru asko irabazten dutelako, taldearen aldeko beren ahalegina gorputzez, fisikoki, adierazteko duten aukeragatik baizik. Gorputza azken muturreraino behartuz eta bihurrituz errematatzen saiatu ondoren –gola sartu edo ez berdin dio, hori da gutxienekoa–, inertzia zoragarri batek darabil futbol jokalaria, airean noraezean lehenik, belar gainean kontrolik gabe bueltaka gero. Barruan zuen guztia eman du eta ez da jada bere buruaren jabe. Une horretan, fisikoki ere, ez da bere baitakoa.

## **2004ko apirilak 27**

### Zedarritu gabeko etxe atariak

Zedarritu gabeko etxe atariak,  
xederik gabeko haurtzaro puskak,  
emaitzarik gabeko jolasak.

Jolastegietatik kanpo,  
ikastegi ororen aurka,  
mundua araurik gabe.

Oraindik ere bai, batzuetan.

## **2004ko maiatzak 4**

Betiko kezka, betiko galdera: egoki kudeatzen ari ote naiz barruan daukadan maitasun apurra?

## **2004ko maiatzak 9**

Ironiarik batere gabe esango dut: nazka-nazka eginda naukate literaturaz aritzean ironia bertute goren eta ezinbesteko moduan laudatzen dutenek. Ez al dakite esan eta idazten den bakoitzean min handia hartzen duen hitza dela hori?

\* \* \*

Hilerriaren sarrerarako errotulua: “Hemen ez da inor bizi”.

## **2004ko maiatzak 30**

Dudak eta damuak, nire betiko mamuak. Urtaroak nire minetan: Dudaberria, Duda, Dudazkena eta Damua.

## **2004ko ekainak 1**

Plazerak plazer, pozak poz eta bizitzaren ibilbidean zehar izaten ditugun garaipen txikiak gorabehera, azkenean, azken beltzean, azken beltz ezinbestekoan, beti heriotza dela garaile esan nion adiskide bati.

Adiskideak, ordea, ziurtasun harrigarritz erantzun zidan ezetz, behin eta berriz ezinbesteko garaile irteten dena bizitza dela.

Lehenik harritu eta ondoren hausnartu ostean, arrazoia zuela esan nion. Baina ez dut lortu arrazoia balu bezala bizitzea.

Ez gara geure baitakoak, eta ederra da hala pentsatzea. Baina ez nau kontsolatzen neurea ez den bizitzak.

## **2004ko ekainak 8**

### Aukerak

Heriotza gurtzea  
ez da beldurgarria,  
heriotza gurtzea  
zilegi da.  
Bizitzari lotzeko  
modua ere izan daiteke,  
bizizalearen aukera  
errespetatzen bada.  
Bestela ez.

Ezkorrak eta uzkurak,  
itunak eta ilunak,  
hitsak eta hutsak  
izan arren, itxiak  
ezin gara izan.  
Gutxiegi dakigu horretarako.  
Gutxiegi dakigu beste ezertarako.

## **2004ko ekainak 9**

Zakar baino ez dakit maitasunaz hitz egiten, gozotasunaren eta zoriontasunaren beldur. Baina uste dut beste edonorenaren antzekoak direla, azken batean, nire irrikak eta premiak, nire ezinak eta saminak. Akaso diferente izateko gogo koxkor bat baino ez da izango nire ustezko tristura existentzial hau, esnobismo afektibo ergela.

## **2004ko ekainak 12**

Ez diot inori mesederik egiten. Betikoak bezalaxe, ezagutzen ditudan lagun berriak ere gero eta zaharrago daude, inor ere ez zait egokitu nik ezagutu nuenean baino gazteago.

## **2004ko ekainak 12**

Azkeneko zortzi-hamar urteetan ia-ia egunero gosaltzeko erabili dudak katilua apurtu zait gaur goizean, sukaldeko mahaitik harraskara neramala. Une honetan, laster oheratzeko naizela, ez dakit bihar zer katilutan hartuko dudak gosaria. Bai abentura gogor eta zirrargarria dela bizitza!

## **2004ko ekainak 13**



Ados gaude. Oker, beraz.

\* \* \*

Hegoak ebaki banizkio, kazolan egongo zen.

### **2004ko ekainak 16**

Maitemina eta eromena. Maitamena eta eromina. Maiteromina. Maiteromena. Maiterominmena.

### **2004ko ekainak 18**

Inoiz ez du inork nik idatzitako ezer neuk bezala ulertu. Irudipen hori daukat behintzat. Eta inoiz halakorik gertatuko den itxaropen handirik ere ez honekero. Baina hala ere nik idatzi egin behar dut, eta zuek irakurri egin behar dituzue nik idatzitakoak. (Ikus 2004-II-14.)

### **2004ko ekainak 26**

#### Nire tristura guztia

Nire tristura guztia  
batu nahi nuke  
hitz gutxitan,  
keinu bakarrean.  
begirada batean.

Ezin diezaioket inori  
ezer hoberik eskaini.

### **2004ko ekainak 28**

Gero eta mesfidantza handiagoa diet idazle ezagunen obrei buruzko laudoriozko goraipamenei. Ezin dut idazle-izen batzuek, nahita edo nahi gabe, izandako hazkundera protestarik gabe ametitu. Eta gustuko idazleen obrak laudatzean ere, ezin naiz, gogor saiatu arren, ohiko suhartasunaren laudenera ere hurreratu. Hutsune handiak sumatzen eta atzematen baititut idazle guztien obretan, hala ospetsuenen ospetsuenetan nola neure gustukoen gustukoenetan, ezintasun handi eta atzera-bueltarik gabeko baten askotariko zantzuak. Eta haien lan bere onean ere azken batean erdipurdikoa bestelakotuz neure eta hobe egiteko gogoia nagusitzen zait. Akabo bestela! Zer gara ba! (Ikus 2004-III-30 eta gainerakoak.)

### **2004ko uztailak 15**

#### Doi

Behin batean, ipuinek ez dutela soberako hitzik behar jabetu zen.

## **2004ko uztailak 16**

Nahi adina bider ikus ditzakezu bideoan, zeuk nahi duzunean, gustukoen dituzun irudiak. Berez, ikaragarria behar luke horrek. Baina ez da. Ez da.

## **2004ko uztailak 24**

Ez nau larritu 41 urte betetzeak. “Dudak eta damuak, nire betiko damuak”, idatzi nuen iragan maiatzaren 30ean. Urteak betetzearen aurka ezin dut ezer egin; afera horretan ezin zait, horrenbestez, ez dudarik eta ez damurik egokitu. Antzeko gisan, kirolariak ere pozik agertu ohi dira emaitza onik lortu ez arren barruan zuten guztia eman dutela irizten diotenean.

## **2004ko uztailak 31**

Oporretako lehen eguna dut gaur. Normalean baino lan bat gehiago izatea dakar horrek: zer egingo dudan pentsatzea.

## **2004ko abuztuak 5**

Garbigailua, sukaldea edo hozkailua mugitzean, etxe-tresnaren atzealde ilunera aspaldi erori eta bertan lizundutako zikinkeriak geratzen dira agerian. Jakineko kontua izanagatik ere, kezka domestikoen esparrutik haratagoko izu arrazoirik gabekoa eragiten dit beti une horrek, barru-barruan.

## **2004ko abuztuak 6**

Ez da, horrela esanda, oso poetika ortodoxoa izango, baina niretzat poesia, funtsean, eder sentitzeko modu bat da; eta batzuetan kasik soil-soilik guapo.

## **2004ko abuztuak 14**

Filmetako pertsonaiek ez dakite film bateko pertsonaiak direna. Ezjakintasun inozo hori ez da sinesgarria. Benetako pertsonak oso ondo dakigu film bateko pertsonaiak garena.

## **2004ko abuztuak 17**

Kezka batetik bestera bizi naiz, ezinbestean. Normala den moduan, ez ditut kezka larriak maite; eta ezinean eta munduarekin haserre sentitzen naiz kezkak pilatzen zaizkidanean. Baina inoiz kezkarik gabe geratuz gero berehala bilatzen dut bat, kezkarik gabe ez baitakit bizitzen, kezkarik gabe nekez baitu benetako funtsik nire bizipozak.

Kezka batzuk oso atseginak zaizkit; bakarra eta menpekoa dudanean sentitu ohi naiz lasai, gustura, munduarekin bakean. Baina batzuetan, zergatik ez dakidala, horrela sentitzeak berak ere kezkatu egiten nau.

Kezkei neurria hartzea da –geure esku dagoen neurrian behintzat–, ondo sentitzeko dugun biderik egokiena. Baina bihurria da, atzematen zinez gaitza, bizi gaituzten kezken atarramendua.

## 2004ko abuztuak 18

Idaztea, besteak beste, berak maite duenak bera ez duela maite jakin berri duenaren erreakziorik berezkoenetako bat da. (Itsusi ez sentitzeko ahalegina, azken batean: ikus 2004-VIII-6.)

## 2004ko irailak 9

Silvio Rodriguez kantariaren prentsaurreko batean izan da gure lankide bat, *Berria* egunkariko Kultura saileko kazetari bat, gaur arratsean. Bihar zuzeneko emanadia du Rodriguezek Donostian, eta gaur arratseko prentsaurreko hori bere kantuetako hitzen bilduma aurkezteko baliatu du: *Canciones*. Oso liburu dotorea omen da, luxuzkoa kasik. Ez dut ikusi; lankideak ezin izan dit erakutsi. Nahiko argitalpen mugatua egin dutenez, kazetariei ez diete alerik eman.

Zazpi eta erdietan zen hitzordua, baina Rodriguez ordu laurdeneko atzerapenez agertu omen da, horregatik asko estutu gabe. Gure lankidea tripak jaten egon da agerraldi osoan, amorrarazita, gero Andoaingo erredakzio nagusira itzuli eta ziztu batean idatzi behar zuelako artikulua. Egoera horretan, Rodriguezen eta inguruko komentarioak eta umorea kontrako eztarratik sartu zaizkio.

Askotan egokitzen zaizkit neuri ere horrelako egoerak, eta horrelako egoeretan neuk ere, gaur nire lankideak egin duen bezala, ekitaldiko pertsonaia nagusiarengana bideratu ohi dut –isilean, jakina– neure barruko amorru ustel eta gaiztoa.

Dudarik gabe, metafora eta irudi bikainak izango ditu bere baitan Silvio Rodriguezen kantu liburuak, hunkigarriak, oso ezagunak horietako batzuk gure artean, aspaldidanik lagun izan ditugunak. Nahita ere, horretan gogor saiatuta ere, ezin izango nuke liburuaren balioa eta interesa zalantzan jarri. Baina une batez –une batez bakarrik, jakina– lankideak prentsaurrekoaren berri eman didan tarte laburrean, liburu hori ez ezik liburu barruko kantu horiek guztiak ere iruzur nazkagarria baino ezin direla izan iruditu zait.

## 2004ko irailak 10

Gauean, kaleak isilik direla, aparkatutako autoei eman diet arreta. Zein bere txokoan geldirik daude, handik gertu atsedean hartzen egongo bide den jabearen zain, eta ez dute ezer eskatzen. Halaxe geratuko lirake jabea inoiz etorriko ez balitz. Harrigarria gertatu zait gauez kale isiletan aparkatutako autoen otzantasun erabateko hori. Ez zuten inondik inora ere autoak ematen.

## 2004ko irailak 17

Kaleko kabina bat erabiliz telefono deia egiten saiatu eta amorrarazita bukatu nuen atzo. Lehenik, euro bat sartu eta alferrik galdu nuen, hiru aldiz probatu arren telefonoz bestaldekoak ez baitzuen nik esandakorik entzuten; aparatuak ez zidan hala ere txanponik itzuli, jakina. Ondoren, handik 150 edo 200 metrora zegoen beste kabina batera jo eta handik ere ezin izan nuen deitu, kabina hark ez zuelako txanponik onartzen; tarjeta bidez baino ez zuen funtzionatzen nonbait, eta nik tarjetarik ez nuen.

Bigarren ahalegin ustelaren ondoren, aurikularra kabinako kristalaren kontra amorrutik jaurtitzen nuen une berean –zazpiki samarra naiz–, ohar-koaderno honetaz oroitu nintzen: pairatzen ari nintzen injustizia larri haren berri hemen eman nezakeela

bururatu zitzaidan. Berehala jabetu nintzen, jakina, ezin nuela horrelakorik egin, absurdua zatekeela ohar-koaderno hau horrelako arrangurentzako plaza bihurtzea.

Lehenago ere gertatu izan zait, gisa horretan amorrarazi eta gero kontsolabidea edo mendekua literaturan bila dezakedala pentsatzea. Zilegia ere bada pentsamendu hori. Baina atzoko burutazioa gehiegikeria nabarmena izan zen. Lehen, horrelako egoeretan, gutxienez gaia pixka bat lantzea izaten nuen buruan, gertatutakoa oinarri hartuta literatur artifizio bat sortzea; ipuin bat idaztea, adibidez. Atzoko horretan, ordea, gertatutakoa besterik gabe kontatzea pasatu zitzaidan burutik, salaketa zuzena, egunkari bateko zuzendariari gutuna idaztearen antzeko zerbait.

Azkenaldian, ea zerbait idazten ari al naizen galdetzen didatenean, ezetz erantzun ohi dut lehenik, eta gero “gauza txikiak” esaten dut, “ipuin laburrak, poema gisako batzuk, testu solteak, gauza luze eta handirik ez...”. Halaxe da. Sakonean aztertuz gero, artifiziorik batere gabeko literatura da azkenaldian idazten ari naizena. Ez dut adierazteko dudanarentzat literatur artifiziorik sortzeko gogorik izaten, zuzen-zuzen idazten ari naiz idazten dudan guztia.

Beharbada ohar-koaderno honexen errua izango da hori. Erosoa zait adierazi beharrekoa –literaturaren benetako motorra, edo benetako literaturaren motorra–hemetxe zuzen-zuzenean, buruan dudan bezalaxe, adieraztea; ahalik eta egokien eta indartsuen idatzita, hori bai. Beharbada muturreraino iristen ari da ohar-koaderno honekin dudan lotura. Beharbada ohar-koaderno honekin dudan lotura inoiz baino estuago hori da ohar-koaderno honetatik kanpo geratuko lirakekeen forma literario guztietatik urruntzen nauena. Beharbada ohar-koaderno hau ahaztu artean ez naiz ipuin luze samarrik edo nobelarik idazteko gauza izango, ezin izango dut inongo literatur artifizio sendo samarrik landu. Beharbada ohar-koaderno hau erailtzeko tenorea iritsi da. Edo beharbada ez. Beharbada ez da horren kaltegarria literatur artifizioari uko egitea, bolada batez, urte batzuetan, ez jakin noiz arte... Azken batean, zer da literatura idazleak barruak eskatzen diona egiten ez duenean? Azken batean, nori axola zaio nik zer idazten dudan? Azken batean, ba al dago alde zuzenetik jakiterik zein den inorentzat biderik egokiena literaturan?

## **2004ko urriak 9**

### Idazlea idazle

Egoa ebaki banio, ez zen gehiago idazle izango.

## **2004ko urriak 10**

Liburu denda bateko apal liburuz beteen artean galtzen naizenean, zapalduta sentiarazten nau horrenbeste talentuz eta horrenbeste nekez osatu diren lan horien guztien pilaketa gupidagabeak. Zer egin dezake idazle batek amaierarik gabeko baso sakon horretan zuhaitz ezin bada gutxienez hosto izatera iristeko?

Inon denik gairik arraroenean murgilduta idazteko grina pizten zait horrelakoetan; ezkutuan, inork ere inola ere ezin esperoko zukeen bidetik, orain arteko guztia gaindituko lukeen zerbaiten bila.

## **2004ko urriak 19**

Ez nuke gaizki ikusiko neure burua giza miseriaren adierazpen zuzenaren arloko markak hausten dituzten egungo telebista programa harrigarri horietako batean,

intelektualarena egiten. Beste gonbidatu batzuek elkar bortizki larrutzen duten bitartean, bazterreko txoko batean eserita nengoke ni, aitona zenaren kareizko betaurrekoak jantzita, isilik, eskuekin masaila igurtzitzen, begiak zorrotz. Akaso tarteka zerbait esan ere egingo nuke, besteak inoiz isilduz gero. Ez derrigorrez bertan ikusitakoaz eta entzundakoaz, ez derrigorrez logika eta funts handiko hitzak; ez derrigorrez ezer, edozer baizik.

Uste dut irabazian aterako litzatekeela gisa horretako edozein saio nire parte-hartzearekin. Eta neuk ere ondo pasatuko nuke, intelektual tituluaren aitzakiarekin, neure txokoan, saioan neure eran parte hartuz.

### **2004ko urriak 19**

Goizaldeko hirurak dira eta esna nago, ohean bueltaka aritu ondoren jaiki eta ordenagailuaren aurrera etorrita. Beste batzuetan gertatu izan zaidan bezala, ohean loak ezin hartuta nengoela, mendi buelta batzuetan ezagututako lekuak etorri zaizkit burura, aspaldi ikusi ez ditudan leku zehatz batzuk; ez, itxuraz behintzat, bereziki ikusgarri edo enblematikoak: Santa Marinatik gertu dagoen baserri abandonatua, Aldaolasko bailaran; izena oroitzen ez dudan baseliza zaharra Listorretatik gertu, Aldura Txiki mendiaren magalean; behin baino ikusi ez dudan eta nolakoa den oroitzen ez dudan Kizkitza eta Izazpi arteko bideko gune zabal bat...

Adiskide minen moduan oroitu ditut leku horiek eta beste asko (*Euria ari du* ipuin bildumaxoko azken ipuineko agureak bezalaxe): aspaldian ikusi gabeko adiskide abandonatuak. Estutu egin nau leku horietan oraintxe bertan egon ezinak, berriro leku horietan noiz eta nola izango naizen ez jakiteak. Ezin ordainduzko zor baten zama sentitu dut, ezintasun baten mina, galera baten zantzuak...

### **2004ko urriak 20**

Adiskideak gogoan berriro gauaren bakardadean: iturri txikia Santa Barbaratik Irimora igotzen den bidexkan; aldare baten antzeko zuloa Andutz mendiaren magalean, Bilbo eta Donostia arteko autobidetik oso gertu; hegazkin istripuan hildako faxisten omenezko hilarria Madariagatik gora, Urnobitza mendiko tontorrera heltzear... Ezin ordainduzko zor baten zama, ezintasun baten mina, galera baten zantzuak...

### **2004ko urriak 31**

#### Anti-publi1

Hitzik nahiz musikarik gabe eta zuri-beltzean. Aurpegi zartatuko eta begirada zorrotzeko gizon serio eta ilun, ezinago ilun bat, edalontzi txiki batetik likido garden bat edaten, gela edo areto estu eta hits, ezinago hits batean. Muturreraino gogorrak biak, elkarren aurkako borroka gupidagabeen dirudite gizonak eta edariak. Amaieran, errotulu txiki bat agerida pantailaren behealdean: "Hau ez da iragarkia."

\* \* \*

Autobidean txofer noalarik, zer ibilgailu aurreratu behar dudan edo aurreratze lanak noiz hasi behar ditudan erabakitzean, inguruko ibilgailuen abiadura behar nuke aintzat hartzeko faktore nagusia. Baina maiz askotan, nahi gabe ere, ibilgailuaren itxurari erreparatzen diot daraman abiadurari baino gehiago.

### **2004ko azaroak 3**

“Hau da: baliteke munduaren zentroa Times Square plazan egotea... Baina Aizpurutxon ere izan dezakegu, oso modu garbian, munduaren zentroaren sentzazioa.” Fermin Etxegoienek idatzi du, ez nik, gaurko *Berrian*.

### **2004ko azaroak 4**

Poesia txosten batean, komunikazio estrategiei buruzko atalean: “*El silencio no es rentable.*” Jator esanda: “Isiltasuna ez da errenta.”

### **2004ko azaroak 5**

Injustiziaren aurrean justua izateko, ez dago injustiziaren jatorrizko iturburuaren bila jotzea bezalakorik. Baina, horretan saiatuz gero, aurreneko ur-batzean egiten digu eraso zalantzak: zein da ibai-enborra?; zein da ibai-adarra? Injustizia ugari ezagutzeko aukera ematen du injustizia baten iturbururainoko bideak, amaierarik gabeko ikerketa labirintikoan; ibai baten iturbururainoko bideak ibai ugari ezagutzeko aukera ematen duen modu berean.

Eta azkenean, nahi ezta ere, igeri egiten irakatsi zigun ibairakoa dugu isuria.

### **2004ko azaroak 6**

Dena neurrian. Zoriona ere bai?

### **2004ko azaroak 11**

Gutxitan izaten dut benetan nahi dudana egiteko aukera. Eta aukera dudanean, gutxitan jakiten dut benetan zer egin nahi dudana. Eta horrela.

### **2004ko azaroak 21**

Euria ere aterpe bila.

\* \* \*

Hemen, euria ari du. Ispiluan, ud ira airue.

\* \* \*

Gaurko bi esalditxo horiek poema baten oinarri edo abiapuntu izan zitezkeen, baina artifizialegia zatekeela iruditu zait. Jakin-min handiko xehetasunzaleentako oharra: gaur ez du hemen euririk egin.

### **2004ko azaroak 26**

Urte askoan irakurri ditudan iritzi artikulua eta saiakera ezkertiar guztien eragina agerian du nire aurrean paratzen denak, buruko ile batzuen kizkurtze nahasi eta itxura

argiro errebeldekoan. Ondo pentsatuta, gutxi ere ez da, bizi garen garaian. Ezkertiar asko dira, ile gabeturik, horretarako ere aukerarik ez dutenak.

### **2004ko azaroak 28**

Barregura sortzen dit ohar-koaderno honen argitalpena aurkezten dudanean kazetariak “ez dakit zenbat urteko isilaldiaren ondoren” berriro plazan nagoela esango dutela pentsatzeak. Une horretan, liburu mardul eta mamitsu batek adinako meritua hartuko du, gutxienez, isilaldi horrek. Hutsalaren hutsala, dena hutsalkeria.

### **2004ko abenduak 1**

Anemonak, barbarinak, itsasbelar forma hartzen duen sabelpea... *Biluzik*, Kirmen Uriberen ur azpiko poema sentsuala, Mikel Urdangarinen ahotsean... Bejondeiela, benetan! Baina, gaitz baten gisa, arrazoi jakinik gabeko ezintasun ikaragarri batek banantzen eta urruntzen nau edertasun ezin argi eta gardenago horretatik, arrotz sentiarazi arte.

Ez dakit zer den. Baina nahita ere, ezin, ezin, ezin.

### **2004ko abenduak 4**

Anemonak, barbarinak...  
Platelmintoak, nematelmintoak...

### **2004ko abenduak 5**

Baraurik, janarekiko nazka hutsagatik.  
Biluzik, arroparekiko nazka hutsagatik.  
Bakarrik, jendearekiko nazka hutsagatik.

### **2004ko abenduak 8**

Bitoriano Gandiaga zenak dio *Adio* liburu berrian: “Idaztea / ba al da beste ezer / bakoitzaren / ikuspuntutxoan / propaganda / baino?”. Hori irakurtzeko unean, adiskide pozgarri bihurtuta kausitu dut, bat-batean, ezustean, behiala etsai gogor izandako hitza: *propaganda*. Ez gara geldirik egonak. Egin dugu biderik, bai, azkeneko urteetan, bai hitz horrek eta bai nik.

### **2004ko abenduak 14**

Hizkuntzan erre, hizkuntzari negar eragiteraino, horra idaztea zer den. (Nire azkenaldiko bi irakurketari zor diet definizioa: Alejandra Pizarnik eta Pako Aristi daude atzean.)

### **2004ko abenduak 15**

Bikotekide den unetik, bikotekide denez, bikotekidearekin nahiago izan behar. Baita nahi ez bada ere. Nahitaez. Nahi izan behar dena nahita ere ezin nahi izanaren nahigabea datorren arte. Eta orduan, zer nahi duzue?

## 2004ko abenduak 24

Nacho Vidal porno-aktorea ikusi nuen aurreko batean telebistan. Zorte handia izan duela adierazi zuen, neska eder askorekin larrua jotzeko aukera izan duelako. Baina porno-aktoreei bakarrik ez, arlo guztietako jende ezagunari egiten dizkiote gaur egun, gero eta maiztasun handiagoz, gisa guztietako hedabideetan, sexuaren inguruko galderak, testak, inkestak eta elkarrizketak; eta horietan ere ia elkarrizketatu guztiek uzten dute agerian, aldez edo moldez –zuzenean esan gabe baina irri maltzurrez iradokiz, kasurik gehienetan...–, promiskuo samarrak direla, edo eskarmentu handi samarrekoak gutxienez.

Nire bizitza sexualaren oso bestelako ikuspegia dut nik; tamalez, esan beharko dut. Arestian aipatu ditudan tankerako elkarrizketak entzun edo irakurtzean, handiegia egiten zait alferrik galdu ditudan aukera guztien zama nostalgikoa. Sexuari dagokionez, behar bezala ustiari gabeko mutila naizela sentitzen dut; eta, horrenbestez, gutxiegia gozatu dudala sexuaren plazeraz eta gainerako onurez.

Lagun batzuekin komentatu izan dudanaren ildotik, uste dut, nire kasuan behintzat, ikaragarri handia dela, sexuari dagokionean, zabaltasun teorikoaren eta estutasun praktikoaren arteko aldea, amildegia, leizea... Erreprimitu sexuala naizela, alegia, iritziaren laino etereotik ekintzaren sasi urragarrira jaitsi orduko.

Hala ere, gisa horretako elkarrizketatxo batean sexualki zuzen –eta are sinpatiko ere– agertzeko prestatuta nagoelakoan nago. Horretan saiatuko naiz, jakina, inoiz niregana baldin badatoz.

## 2004ko abenduak 27

Etxe normal batean bizi naiz. Dutxa hartu dut, bizarra kendu, gosalduta... Eta orain, kalera irten baino lehen, galtzerdi normalak jantziko ditut, galtzontzilo normalak, galtza normalak, oinetako normalak, elastiko normala, jertse normala... Horrela irtengo naiz, normaltasun osoz. Eta berriro iluntzean etxera itzuli arte, normal agertzea izango da nire kezka eta ahalegin guztien oinarria eta ardatza.

## 2004ko abenduak 31

Azkoitiko gaztetxeko mobidetan sartuen egon nintzen garaian –1982 edo 1983an hasi, okupazioen aurretik egin ziren Azkoitiko Gazte Asanbladaren lehen bileretan, eta 1986an Azkoititik kanpo lan egiten eta bizitzen hasi nintzen arte–, amak prestatutakoa bazkaldu eta afaldu nuen ia-ia egunero, euskal filologiako ikasketak egin nituen, eta literatura idazten hasi nintzen. Ezin dut esan, beraz, buru-belarri sartu nintzenik gaztetxeko mobidetan.

Gainera, orain oroitzen dudanaren arabera behintzat, nire orduko motibaziorik edo ilusiorik handiena ez zen lan edo borroka kolektiboaren bitartez kapitalismoa suntsitzen eta gizarte justuagoa eraikitzen ahalegintzea; nire jakin-mina itzarri, liluratu eta durduzatu zuen mugimendu haren zuzeneko eta barruko lekuko izatea baizik. Hori bai: lekuko onartua, eta are estimatua ere; egin nuen lan militante apurrari esker, neurri handi batean.

Azken batean, altxor intelektual baten bila oroitzen dut neure burua, giro nahasi eta desorekatu hartan gustura eta eroso murgildua. Azken batean, neu horretaz ohartu gabe, jakina, *Galdu arte* nobela idazteko ikusi eta ikasi beharrekoak ikusi eta ikasteak motibatzen ninduen. Azken batean, *Galdu arte* idazteko gauza izatera iristea zen nire orduko benetako ilusioa.



Ez du berritik asko desorduko aitopen honek. Askotan esana dut Papi eta Niko direla nobelako nire bi *alter egoa*-k; karikatura moduan bata, lotura sakonagoz akaso bestea. Eta hori esan gabe ere: ez al du nobelak berak esaten, argi eta garbi, egilea zeren bila ibili zen saltsa hartan?

Kontuak kontu, gero eta urrunago dago *Galdu arte*, gero eta urrunago dago Azkoitiko gaztetxea...

Eta orain? Zeren bila nabil benetan orain, ibiltzen naizen lekuetan, aritzen naizen zereginetan? Eta zeren bila oroituko dut neure burua, bizi banaiz, 15, 20 edo 25 urte barru, gaurko kontuak gogora ekartzean?